

Espainiako hiri nagusiek Irizar aukeratu dute beraien elektromugikortasun proiektuak hasteko

Ormaiztegi, 2017ko uztailaren 27a

Uztailean zehar Irizarri esleitu dizkiote Madrilerako lehen 15 autobus %100 elektrikoak eta Bartzelonarako lehen 4 autobus artikulatu %100 elektrikoak.

Penintsulako merkaturako 22 unitate berri horiekin Irizar e-mobility erreferente bihurtu da zero isurpeneko autobus %100 elektrikoek merkaturan Madril, Bartzelona, Valentzia, Bilbo eta Donostian.

Irizarren autobus %100 elektriko horiek hainbat hiritan dagoeneko badabiltzan beste batzuei gehituko zaizkie, adibidez Donostia, Bilbo, Bartzelona, Azuqueca de Henares (Maitours) eta Mohn-en (Bartzelona).

TMB-rekin (Transports Metropolitans de Barcelona) sinatutako kontratuak 18,73 metro luzeko lau autobus artikulatu % 100 elektriko biltzen ditu, **ie bus** modelokoak (Irizar electric bus).

Erosketa horrekin Bartzelonako enpresak H16 linea %100 elektriko eta zero isurpeneko bihurtzeko lehenengo faseari ekin dio.

Autobus horiek 2018ko ekainean jarriko dira martxan eta Irizar markako 18 metroko lehen artikulatuak izango dira Espainian. 2014ko abuztuaren 18tik hiritan barna dabiltzan 12 metroko biei gehituko zaizkie, biak Europako Batzordeko ZeEus proiektuak.

Aurrez Irizarrek eta Donostibusek 6 hilabetez probatuko dute autobus artikulatu bat ospitaleetara doan hiriko 28. Linean. Irizarrek aukerako kargetarako gunea ere instalatuko du (Jemak egindakoa taldearentzat) autobus hori egunean zehar kargatzeko.

Bestalde, EMTk (Empresa Municipal de Transportes) eta Madrilgo Udalak 15 autobus erosi dituzte eta udaleko konpainiaren lehen autobus %100 elektrikoak dira. lebus modeloko 12 metro luzeko unitateez gain 15 kargagailuz ere hornituko da zerbitzua gauzez kotxe-tokian kargatzeko. Autobusetan ontziratutako energia 376 kWh-koa da eta kargaguneko potentzia 100Kw-koa.

Aurreikusten da autobus hauek aurtengo abenduan entregatuko direla eta Madrilgo hainbat lineatan emango dute zerbitzua.

Valentziak lehen unitatea erosi du eta Bilbok 12 metro luzeko beste bi autobus; denak aurtengo urtea bukatu aurretik entregatzekoak dira.

Fabrikazioa Irizar Taldeko Irizar e-mobility enpresaren lantegi berrian ari gara gauzatzen, Gipuzkoako Aduna herrian. Serieko produkzioaren hasiera da eta konpainia horren lehen 100 lanpostuen sorrera ekarri du.

Irizar e-mobility

Irizar e-mobility Irizar Taldean sortutako azken enpresa da eta elektromugikortasun irtenbide integralak ematen ditu giltza eskuan.

Taldeko enpresa guztien ezagutza eta esperientzia batzen ditu hirietarako mugikortasun irtenbide osoak sortzeko: Autobus %100 elektrikoak eta azpiegitura sistema nagusiak kargarako, trakziorako eta energia biltegitratzeko. Guztiak Taldearen teknologia %100 europarrarekin diseinatu eta fabrikatuak eta Irizarren zerbitzuaren berme eta kalitatearekin.

Produktuen gamaren barruan daude 10,8 eta 12 metroko hiri autobusak, autobus artikulatuak edo biartikulatuak, eta baita hirietan zerbitzua emateko beste ibilgailu elektriko batzuk ere. Irizar e-mobilityren lehen BRT (Bus Rapid Transit) unitatea, 18m-koa eta %100 elektrikoa iraunkortasun eta fidagarritasun probak amaitzen ari da bezeroen artean banatzen hasi aurretik eta urte bukaeran aurkeztuko da merkatuan.

Irizar autobus elektrikoak 2014tik dabilta Europako hainbat hiritan eta, beraz, gaur egun bermatu dezakegu haien kalitatea autonomiari eta fidagarritasunari dagokionez.

Irizar Taldearen asmoa da garraio garbi eta irisgarrien erabilera bultzatzea, ingurumen, ongizate eta pertsonen osasunaren alde egiten baitute, hiri ingurune hobek sortzeko. Kutsadura akustikoa murriztearen alde egiten du, kostuak gutxituko dituzten kontsumo baxuen alde eta zero isurpeneko ibilgailuen alde. Gure lema, beraz, "for a better life" da.

Datuak:

- 2014an Irizar sektoreko lehen fabrikatzaile bihurtu zen Bartzelonari bi ibilgailu %100 elektriko eta Donostiari bat entregatzerakoan.
- 2015ean lehen unitateak entregatu ziren Londres, Marseilla eta Bartzelonako metropoli-barrutian (Mohn, SA) eta probak egiten ari dira Europako hainbat hiritan.
- 2016an Marseillarako 6 unitateak bukatu ziren Frantziako lehen linea %100 elektrikorako eta beste hainbat unitate Donostia eta Bilborako. Lehen autobus artikulatua ere fabrikatu zen eta dagoeneko 6 hilabete daramatza iraunkortasun probak gainditzen Idiadan (Tarragona)
- 2017an 12 metroko 26 unitate entregatuko dira.
- Gainera, aurtengo urtearen bukaeran 22 autobus artikulatu fabrikatzen hasiko gara, Bartzelonak (TMB) erosi berri dituen 4rak eta Euskal kostaldea-Aturri hiriguneak erositako 18ak.